

BESTELAKO XEDAPENAK

ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

2661

EBAZPENA, 2024ko azaroaren 25ekoa, Nekazaritzaren, Arrantzaren eta Elikagai Politikaren sailburuordearena, zeinaren bidez ematen eta ukatzen baitira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2024ko ekainaren 4ko Aginduaren bidez iragarritako laguntzak. Agindu horren bidez, 2024ko ekitaldirako, elikagaien eta egurraren balio-kateetan digitalizazio, berrikuntza eta ekintzailtzarako proiektuak zehazteko eta ideiak heltzeko prozesuak babesteko laguntzen oinarriak ezarri eta deialdia egin zen (Onekin programa).

2024ko ekainaren 17an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA, 117. zk.) argitaratu ziren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2024ko ekainaren 4ko Aginduaren bidez egindako deialdiaren oinarriak. Agindu horren bidez, 2024ko ekitaldirako, elikagaien eta egurraren balio-kateetan digitalizazio, berrikuntza eta ekintzailtzarako proiektuak zehazteko eta ideiak heltzeko prozesuak babesteko laguntzen oinarriak onartu ziren (Onekin 2024 programa).

Deialdi horren babesean eta horretarako ezarritako epearen barruan, guztira 40 laguntza-eskaera aurkeztu dira.

Balorazio Batzordeak horiek guztiak aztertu ondoren, eta deialdi-aginduaren 13. oinarriko 3. puntuan jasotako nahitaezko ebaluazio-txostena egin ondoren, ondorioztatzen da 29 eskaera onartu direla, ebazpen honen I. eranskinean jasotzen den bezala, eta beste 11 ukatu direla, hainbat arrazoiengatik, II. eranskinean adierazten den bezala.

Onartutako eskaerei dagokienez, Elikagaien Kalitate eta Industriako eskumena duen zuzendaritzako zerbitzu teknikoek adierazi dute eskabidean egiaztatu dutela 5. oinarrian ezarritako baldintzak betetzen dituztela, bai eta 2024ko ekainaren 4ko Aginduan ezarritako gainerako irizpideak ere. Agindu horretan kalkulatu da eman beharreko laguntzaren zenbatekoa.

Aginduaren 13. oinarriko 1. puntuan ezarritako eskumena aplikatuz, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariak behin betiko ebazpen-proposamena egin zuen. Bertan, dirulaguntza ematea proposatutako erakunde eskatzaileen zerrenda eta dirulaguntzaren zenbatekoa jasotzen dira.

Behin betiko ebazpen-proposamena onartu ondoren, Nekazaritzaren, Arrantzaren eta Elikagai Politikaren sailburuordeari dagokio deialdia ebaztea, ebazpen bakar baten bidez. Ebazpen horretan, eskatutako laguntzak eman edo ukatuko dira.

Horregatik guztiagatik, ebazpen hau eman da:

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– I. eranskinean agertzen diren eskabideak onartzea, eranskin horretan adierazitako helbururako eta zenbatekoan.

Bigarrena.– II. eranskinean agertzen diren eskabideak ukatzea, bertan azaltzen diren arrazoiengatik.

Hirugarrena.– Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen. Ebazpen honen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari.

Aurkezteko epea: hilabete bat, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 25a.

Nekazaritzaren, Arrantzaren eta Elikagai Politikaren sailburuordea,
RAÚL PÉREZ IRACHETA.

2025eko ekainaren 16a, astelehena

I. ERANSKINA
ONARTUTAKO ESKAERAK

Espediente-zk.	Proiektua	IFK/NAN	Sozietate-izena	Lagun. inber. (euro)	%	Jasotako laguntza (euro)
1	00001-ONK2024-63 Onmikatz: cultivo in vitro de la var. manzana D.O. Mikatza.	***4923**	Luis Maria Zabala Bengoechea	9.388,83	% 40	3.755,53
2	00002-ONK2024-63 Cloudivitro.	B95770137	Aleovitro, S.L.	8.518,56	% 50	4.259,28
3	00003-ONK2024-63 Obtención de la certificación BCR packaging.	B01536192	Guardian Products and Promotions, S.L.	6.250,00	% 40	2.500,00
4	00005-ONK2024-63 Escalado en proceso de producción de levaduras Zabala Gorria para elaboración de Sidragorria D.O. Euskal Sagardoa.	***0673**	Martin Zabala Bengoechea	9.822,09	% 40	3.928,84
5	00007-ONK2024-63 Digitalización cadena de valor.	F20849675	Euskaber, S.Coop.	25.451,00	% 40	10.000,00
6	00008-ONK2024-63 Soluciones para tratamiento de datos de las explotaciones socias de la cooperativa Abere.	F01520139	Abere Zerbitzu Teknikoak, koop. s.	9.571,88	% 40	3.828,75
7	00009-ONK2024-63 Diseño y puesta en marcha de una empresa dedicada a la construcción en madera.	B44952406	Igo Egur Erainkuntza, S.L.	12.000,00	% 60	7.200,00
8	00011-ONK2024-63 Identificación de nuevas aplicaciones para el aprovechamiento de subproductos cármicos de categoría III.	F48010177	Seberia Bilbaina, S. Coop.	4.870,00	% 40	1.948,00
9	00013-ONK2024-63 Implantación de sistema APPCC.	***8378**	Xabier Otxoa de Alaiza Azazeta	2.500,00	% 40	1.000,00
10	00015-ONK2024-63 Automatización integral del proceso digital desde la recogida de pedidos por voz hasta la entrega al cliente.	B01712850	Gure Poke, S.L.	4.500,00	% 50	2.250,00
11	00016-ONK2024-63 Desarrollo de un nuevo producto segun requisito de nuevo cliente.	B20695896	Dulcifrost, S.L.	11.575,00	% 40	4.630,00
12	00017-ONK2024-63 Desarrollo e implantación de procedimientos internos para ampliar el mercado de exportación.	B20531604	Salanort, S.L.	10.113,95	% 50	5.056,98
13	00018-ONK2024-63 Implantación norma IFS.	B13743521	Compañía Navarra de Cocinados y Elaborados, S.L.	12.172,00	% 50	6.086,00
14	00019-ONK2024-63 Innovación mediante la implantación de un sistema de gestión de calidad y seguridad alimentaria.	B75205443	Obrador J. Arguiñano, S.L.	6.300,00	% 50	3.150,00
15	00020-ONK2024-63 Implantacion norma IFS.	B20054326	Viuda e hijos de Jeronimo Izaguirre, S.L.	10.080,00	% 40	4.032,00
16	00021-ONK2024-63 Lacteoifit - estudio de consumidor y test de producto.	***1823**	Borja Cazalis Atxabal	13.000,00	% 40	5.200,00

2025eko ekainaren 16a, astelehena

	Espediente-zk.	Proiektua	IFK/NAN	Sozietate-izena	Lagun. inber. (euro)	%	Jasotako laguntza (euro)
17	00022-ONK2024-63	Establecer las bases para la implantación de la cultura de seguridad alimentaria propia de la empresa.	B75062224	Garfish Trading, S.L.	6.050,00	% 40	2.420,00
18	00023-ONK2024-63	ILB group.	B95951208	Insekt Label Biotech, S.L.	20.595,00	% 60	10.000,00
19	00024-ONK2024-63	Vitoria Petfood Lab – Launch.	B70806476	Vitoria Petfood Lab, S.L.	10.000,00	% 60	8.000,00
20	00026-ONK2024-63	Progreso del sgcsa de la empresa hacia las normas de referencia estableciendo las bases de la cultura de seguridad alimentaria.	A20084869	Viveros San Anton, S.A.	8.310,00	% 40	3.324,00
21	00027-ONK2024-63	Desarrollo de carta de pintxos preelaborados Euskolabel para su consumo en eventos de diverso formato.	F95602470	Harakai, S. Coop.	33.335,98	% 40	10.000,00
22	00028-ONK2024-63	Estudio y asesoría para la puesta en el mercado de productos fertilizantes elaborados de manera ecológica.	J01508464	Ekaia Eko-Gestion, S.C.	4.752,30	% 75	3.564,23
23	00029-ONK2024-63	Digitalización Urbide.	B01559525	Urbide Ekologikoak, S.L.	9.990,00	% 40	3.996,00
24	00030-ONK2024-63	Sistema de seguridad alimentaria.	B01155266	Exclusivas Landazuri, S.L.	5.830,00	% 40	2.332,00
25	00031-ONK2024-63	Plan de desarrollo y consolidación.	***2339**	Iker Garcia Nafria	6.901,00	% 50	3.450,50
26	00032-ONK2024-63	Mejora eficiencia y productividad, almacén y logística mediante la digitalización.	F01035278	Garlan, S. Coop.	13.560,00	% 40	5.424,00
27	00034-ONK2024-63	Nuevos estatutos y pacto de socios.	B02859825	Cooking Ohiturak, S.L.L.	4.000,00	% 40	1.600,00
28	00037-ONK2024-63	Adaptación de la organización de la empresa a los nuevos modelos de calidad y seguridad alimentaria para mejorar la confianza del consumidor.	B75233692	Hotel Deba, S.L.	2.850,00	% 40	1.140,00
29	00038-ONK2024-63	Artukoluke digital.	B20557039	Artukoluke, S.L.	23.400,00	% 40	9.360,00

2025eko ekainaren 16a, astelehena

II. ERANSKINA
UKATUTAKO ESKAERAK

	Espediente-zk.	IFK/NAN	Sozietate-izena	Ukoaren arrazoia
1	00004-ONK2024-63	***4804**	Jon Ander Alcalde Echeandia	Atzera egitea.
2	00006-ONK2024-63	***8244**	Yvette Míguez Pére	Diruz lagundu ezin diren gastuak.
3	00010-ONK2024-63	B95992905	Yuit the fair food company, S.L.	Beste laguntza batzuekin bateragarriak diren gehieneko laguntza-ehunekoak gainditzen ditu.
4	00012-ONK2024-63	B31684020	Kaiku Corporación Alimentaria, S.L.	Diruz lagundu daitezkeen jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremutik kanpo egiten dira.
5	00014-ONK2024-63	A09045980	Segura Hostelería, S.A.	Proiektua ez da nekazaritzako elikagaiei buruzkoa.
6	00025-ONK2024-63	***7765**	Irene López Ubiria	Diruz lagundu ezin diren gastuak.
7	00033-ONK2024-63	B75036384	Sagar-Lore hotela, S.L.	Eskabidea osatu gabe dago.
8	00035-ONK2024-63	B20897021	Petritegi Sagardotegia, S.L.	Eskabidea osatu gabe dago.
9	00036-ONK2024-63	B75043877	Petritegi Sagardoak 2011, S.L.	Eskabidea osatu gabe dago.
10	00039-ONK2024-63	***8606**	Joseba Mikel Cormenzana Oqueranza	Eskabidea osatu gabe dago.
11	00040-ONK2024-63	G95201422	Asociación de ganaderos/as de Orduña y Junta de Ruzabal Bedarvide	Eskabidea osatu gabe dago.